



NORK GUDURA HAROA?

Patziku Perurena

Bilduma: Saiakera

Formatua: 14 x 20,50 cm.

Orrialdeak: 356

Koadernaketa: paperezko azala

Argitalpen data: 2025/09/17

ISBN: 978-84-9868-931-0

SALNEURRIA (BEZ gabe): 20,19€

SALNEURRIA (BEZ barne): 21,00€

EUSKARA, LITERATURA, KRITIKA




9 788498 689310

PATZIKU PERURENA



NORK GUDURA HAROA?



ALBERDANIA



Sinopsia

Gure buruaren definizio nagusitzat biktimismoa hartu eta gure zauriari miazka bizi ez diren hirikideak traidore jotzen ditugu. Ahaztu nahi luketen biktimei ez diegu ahazten uzten, ahazteko eskubidea oroitzekoa bezain errespetagarria eta osasungarria den arren. Ezin da herria amaigabeko doluan bizitzera behartu. Biktimaren oinazeak ezin du zuzenbidea erabaki. Baina horixe ari dira bultzatzen iraganeko minak pribilegio iturri gisa esplotatu eta oraingo emantzipazio bideak oztopatzen dituztenak.

Hainbeste biktima dauzkan herri batean, iraganak eta oinazeen memoriak erabaki behar baldin badute oraina eta etorkizuna, orduan sekula santan ezingo dugu elkarbizitza sano samarra abiarazi. Soseguak, askatasunak eta alaitasunak oroimena fintzea eta arintzea eskatzen baitu.

Esanguratsua da Jaques Le Goff-ek azpimarratu datua: Alemania naziak eta Italia faxistak iritsi zuten iragana oroiberritzeko grinaren gailurra. Nori komeni zaio ibiliegia dugun bide horri eustea? Ez al zaigu heldu oroimena arintzen eta fintzen ikasten hasteko ordua? Todorovek dioenez, memoria, sagaratuz gero, antzu bilakatzen baita.

Egileaz



PATZIKU PERURENA Goizuetako Aitasemegi auzoko bordari giroan jaio zen 1959an, baina Leitzako *Amazabal* kalean bizi da hamabi urte zituenetik. Hala ere, sekulan ez omen du galdu, bere izate guzia zor omen dion bordari giroko eskola estzeptiko hura. Esku artean duzun liburua haxe lekuko. Baina lehendik onduak ere baditu. Hamaika artikulua, iritzi eta kontu bixiren artean, hona saiorik ezagunenak: *Harripilatan ezkututzen zeneko apo tipiaren burutazioak* (1990), *Koloreak euskal usarioan* (1992), *Euskarak sorgindutako numeroak* (1993), *Leitzako errege erreginak* (1996), *Trapuan pupua* (2001), *Harrizko pareta erdiuratuak* (2004), *Dakiguna ikasten* (2007), *Goizuetan bada gizon bat* (2010), *Goizuetako etxeen izenak* (2011), *Hilen xarma* (2015), *Goizuetako dokumentu zaharrak (1324-1918)* (2017), *Leitzalarreko Unaiak (1683-1771)*, *Zezenak plazan, Goizuetan eta Leitzan (1578-2017)* (2018), *Bordarien sorrera eta bilakaera Leitzan eta Areson (1427-1925)* (2019), *Leitzako bordak sorreran (1557-1965)* (2020) eta *Goizuetako folkloreak* (2024).